



euskal eskola publikoa

BUZTINTXURI
IKASTETXE PUBLIKOA
BUZTINTXURI

GURE ESKOLA

● **Gure eskaintza.** Buztintxuriko eskolak hau eskaintzen dizu: Eskola berria, beroa, aurrerakoia, hurbila, etorkizunari begira. Eskola bizia, auzoarekin konprometitu, parte hartzailea eta familiekin harreman zuzena. Hezkuntza taldea etengabeko formazioan. Eskola eleanitza (euskara, ingelera eta gaztelania). Balio uni-bertsalean oinarritzen den hezkuntza. Proiektuetan oinarritutako metodologia, hezkuntza integrala.



● **Buztintxuri.** Buztintxuri Ikastetxe Publikoa Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea da eta Iruñeko Buztintxuri auzoan kokatuta dago. Buztintxuri Iruñeko auzorik gazteena da eta bertan 6.573 pertsona bizi dira. Auzoko bizilagunen gehiengoa familia gazte osatua dago, eta biztanleen ia %17-a 10 urte baina gazteagoa da. Auzoan %22,7-ko etorkin dago, eta ondorioz aniztasun kulturala nabaria da. Atal sozioekonomikoari dagokio-

nez, mota askorekin aurkitzen gara. Auzoan Osasun Etxea, Auzo Unitatea, Haur Hezkuntzako Eskola eta Ikastetxea bera daude. Ikastetxearen inaugurazioa 2009/2010 ikasturtean egin zen, Haur Hezkuntzako 1. Mailako ikasleriarekin. Ikasturte ikasturte Mailak aurrera doaz, ikasle berriak etorri. Buztintxuri IP-k hiru Hizkuntz Eredu eskaintzen ditu: A Eredua, G Eredua eta D Eredua.

ETXEKO BERRIAK

Pasearte, erakusketa bat baino gehiago

AURTEN, GURE ERAKUSKETAN, GARRANTZIA HANDIA IZANEN DU AGOIZKO HEXACOMB ENPRESAK ESKAINI DIGUN MATERIALAK

📷 Testua eta argazkia **Buztintxuri IP**



Iazko Pasearte erakusketaren irudietako bat.

Udaberriarekin batera eskola komunitate osoa inplikatzeko duen festa ospatzen dugu gure eskolan. Ospakizun honetarako aukeratutako izena PASEARTE da, proiektua identifikatzeko duen bi hitz elkartzeko dituelako. Alde batetik, „paseatu“ hitzak auzoa aisialdi, jolasa eta topagunerako lekua bezalako kontzeptuekin biltzen ditu. Bestetik, „arte“ hitzak bere horretan azaltzen du gertaera artistiko batetaz ari garela; hau da, gure ikasleen proposamen

artistiko ezberdinak auzora atera konuneko helburu batekin.

PASEARTE eskola guztiko geletan egindako ekintzen emaitza da. Eskola barruan hasten den proiektua da eta eskola kokatua dagoen auzora zabaltzen da. Aurten 550 ikasle inguruk, 45 irakaslek, eskolako pertsonal ez dozentek eta hainbat familia laguntzailek hartuko dute parte, beraien begirada eta bertaratzearrekin obra bukatutzat ematen lagunduko duten ikusleak ahaztu gabe.

2011-2012 ikasturtearen hasieran, gure eskolako festa eta ospakizunak nolakoak izango ziren eztabaidatzen egon ginenean, proposamen ezberdinen artean eskolako bizitza auzoan ikusgai egitearen ideia sortu zen.

Erakusketa artistiko batek haurtzaroz eskola bezala sentitzen duguna transmititzeko eta aldi berean gure eguneroko lanean inguru hurbilak duen garrantzia bermatzeko aukera ematen digu. Halaber, gure ikasleek adierazten duten berezotasuna eta

askatasuna erakusteko aukera ezin hobea ematen digu, beraien eguneroko lana aintzat hartuz. Erakusketak garena erakusteko bidea ematen digu, hitza erabili gabe.

Eta horrela, 2012-ko apirilaren 27-an lehenengo aldiz PASEARTE erakusketa ospatu genuen.

Arratsaldean erakusketa aretoa izango den plaza, goizean lanerako tailerra bilakatzen da, zenbait lanerako inspirazio iturria izaten baita. Bere horretan oso aberatsa den esperientzia da eta ikasleendako oso esanguratsua, ikasle guztiek lekua ezagutzen dutelako.

Orduan, lanen erakusketaz gain, gure irudimena hegan egiten uzten dugu eta gure ikasleei plaza janzteko eskaintza luzatzen diegu, hau da, gure eskura ditugun materialak, gehienak berrerabilitako hondar materialak, eta eguneroko ekintzak aprobetxatuz kanpoko espazioa eraldatu eta gurea egin.

Ondoren, sortutako ideiei forma emateko haurrekin asanbladan hitz egiten dugu eta berehala guztion ekarpenekin gelako proiektua aberasten dugu. Zenbait kasuetan ikasturtean zehar egindako lanetatik abiatzen gara eszenatoki berri eta komun bati ekiteko; beste batzuetan, ordez, egun horretarako bereziki sortutako instalazioak egiten dira.

Gelako edo taldeko proiektu txikiek, modu goxoago batez bizituak, erakusketa handiago batean forma hartzen dute non partaidetza lankidetzan bihurtzen den eta bizipenak eta emozioak elkarri lotzen diren.

Ekitaldi askotan egiten den modura bisita liburu bat jartzen dugu jendeak erakusketaren inguruko iritzia eta azterna utzi ahal izateko.

Hezkuntza komunitate osoak jardunaldi dibertigarri eta alai batetaz gozatzeko aukera izateaz gain, horren nabariak ez diren helburuak, eta guk horren gustokoak ditugunak, ikusgai egiteko aukera eman digu: erreflexioa, elkarrizketa, entzutea, kritika, konsensua, partaidetza, laguntza, errespetua, balorazioa... Batzutan, gauzarik xumeenak dira ikasteko baliogarrienak.

Datorren maiatzaren 22-an, ostirala, aurtengo PASEARTE ospatuko da eta gonbidapen berezia egin nahi dugu gure auzora hurbildu nahi duen pertsona orori. ●

IRAKURGAIEI TXOKOA

ARTEA, TXIKIENEN NEURRIRA
Izenburua: ARTE GARAIDEA?! Haurrentzako gida MOMA. Egileak: Jacky eta Suzy Klein. Argitaletxea: Nerea.



Liburu erakargarria, irakurterraza eta irudi askoz hornitua, zortzi urteko umeei eta zaharragoei azken bost urteetako

arte garaikide ikusgarria erakusteko. New Yorkeko MoMA (Museum of Modern Art) museoaren arte funtsetatik abiatuta, liburu honen egileek arte lan berezien erreperatorio kolorista eta anitza eskaintzen dute obren argazki ugariaren laguntzarekin. Piezak, 70 bat, pintura eta eskultura ohikoak baino zerbait gehiago dira, argazkiak, ikus-entzunezkoak, performanceak, instalazioak eta arte objektuak eta tramankuluak ere bai baitauzkagu ikusgai eta aztergai, material harri-garriz eginak horietako asko. Liburua, New Yorkeko museoaren gida ez ezik, esku-liburu bikaina da etxean edo eskolan irakurtzeko. Andy Warhol, Louise Bourgeois, Yves Klein, Joseph Beuys, Joan Fontcuberta edo Eduardo Chillida bezalako artisten lanak biltzen ditu. Lana burutzeko, artisten biografia txikiak bildu dira azken orrialdeetan, eta, horrekin batera, arte terminologiaren glosario txiki bat eta baliabide elektronikoa erabilgarrien zerrenda bat. Nazioarteko arte garaikidea ezagutzeko gonbidapen polita, ume, guraso eta irakasleen gozagarri.

GAIA

DIPUTAZIORA BISITA

2. mailako ikasleak otsailaren 26an, Nafarroako Diputazioan egon ziren, Hezkuntza Departamentuak eta “Elkartasun Eskolak” sinatu behar zuten hitzarmenaren ikusle izateko. Buztintxuriko eskola “Elkartasun Eskoletako sarearen” partehartzailea da, eta 2. mailako ikasle hauek arroparen etiketazioarekin hasi zen proiektua aurrera eramaten ari dira, Hezkuntza Garapena lantzeko helburua izanik. Proiektuak euskara, ingurunearen ezagutza, matematika... modu globalizatu batean lantzeko eta ikasleen partehartzea eta baloreak aurrera eramateko aukera ematen ari du eta ikasturte osoan zehar osatuko da. Landutako jardura eraikitzaileen artean mapamundi batean arroparen jatorriaren lurraldeen kokatzea, truekea lantzea, bidezko merkataritzaren kontzeptua eta haur esplotazioa zer den ezagutzea egongo liriteke. Ikasleek Diputazioan izandako agerpenaz aparte, proiektua helarazteko Euskadi Irratian elkarrizketa batean parte hartu zuten.